



**SAGARRAK**  
Grupo Ecologista



Zero Zabor Bizkaian  
elkargunea

## Gehien kutsatzen duten plastikoen erabilera murrizteari buruzko mozioa

---

Sarrera:

Plastikoa ekoizteak, erabiltzeak, birziklatzeak eta errefusatzek arazoak dakartzkio ingurumenari. Gaur egungo gizarteak badaki lehenbailehen erantzun behar diola egoera horri, eraginak ahalik eta txikienak izan daitezzen. Bestalde, lehengaiak modu zirkularragoan erabiltzea onuragarria izango litzateke ingurumenarentzat, gizartearentzat eta ekonomiarentzat.

Maila globalean, milioi bat tona hondakin plastikok amaitzen dute ozeanoan, urtero. Horixe da arazoaren alderdi ikusgarri eta asaldagarrienetako bat, kezka publiko gero eta handiagoa sortzen duena. Ildo beretik, itsaso eta ozeanoetan amaitzen duten hondakinen % 80, gutxi gorabehera, plastikoa da, eta horien zati handi bat hondartzetara bueltatzen da.

Epe luzera, irtenbide bakarra da hondakin plastikoak murriztea, gehiago birziklatuz eta berrerabiliz. 2016an zehar, gutxi gora behera 41.000 tona hondakin plastiko sortu genuen bizkaitarrok; horien zati bat udalerrri bakoitzak jasotzen du, birziklatzeko (zati hori aldakorra da, udalerrriaren arabera). Beraz, gure eremuan eta gure lurraldean dugun erantzukizuna argia da. Erronka horri ez diote herritarrek bakarrik aurre egin behar: erakundeek ere izan behar du ardurak, hau da, Bizkaiko eta Euskadiko erakundeek beren gain hartu behar dute. Ondorioz, bistan da, gure egin behar ditugu Europako Batzordeak ezarritako estrategiak eta helburuak (gai plastiko kutsagarrienen erabilera murriztea bilatzen dute, ekonomia zirkularraren estrategiaren garapenaren barruan).

Gauzak horrela, Sagarrak taldeak, ZERO ZABOR BIZKAIA plataformaren izenean, honako proposamen hau aurkezten dio Basauriko Udalari, ONETSI DEZAN:

1.- Basauriko Udaleko Gobernu Taldeari eskatzea bere eskumenen barruan, Europako Batzordeak finkatutako helburua betetzeko beharrezko jarduketak guztiak garatzeko. Helburuak: 2030 baino lehenago, Europar Batasuneko merkatuetan dauden plastikozko ontzi guztiak birziklagarriak edo berrerabilgarriak izatea; behin

baino erabili ezin daitezkeen plastikoen kontsumoa gutxitzea; eta mikroplastikoen nahitako erabilera murriztea.

2.- Basauriko Udaleko Gobernu Taldeari eskatzea bere eskumenen barruan, eta, gehienez ere, lau hilabeteko epean, neurri sorta bat aurkezteko osoko bilkuran, aurreko puntuan adierazitako xedek lehenbailehen lortzeko. Hona hemen proposa daitezkeen neurri batzuk:

- a. Udaleko horniduretan «erosketa berde»ko irizpideak txertatzea, hau da, lehentasuna ematea plastikorik ez duten produktuei.
- b. Udal eraikinetan eta Udalak antolatutako ekitaldi publikoetan plastikozko botila edo edalontzirik ez erabiltzea.
- c. Herriko jaietan plastikozko edalontzi arinen ordeztutzeko basoak erabiltzeko kanpaina.
- d. Plastikoen ontziratutako produktu gutxiago erosteari, eta erosketak egiteko oihalezko poltsak erabiltzeari buruzko kontzientziazio- eta informazio-kanpainak.

3.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea has ditzala dagozkion administrazio-izapideak, plastikozko objektuen sorkuntza, salmenta, erabilera eta birziklapena arautzeko lege-tresnak onartzeko; eta berariaz jaso dadila erabilera bakarreko plastikozko objektuak merkaturatzeko debekua. Alde horretatik, lege-proposamen bat presta dezan eskatzen diote, Balearretako Gobernuak abiarazitako ekimenen antzera.

4.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea haren eskumen-esparruan berariazko neurriak har ditzala, Bizkaiko portuan eta itsasontzietan itsas-hondakinak egokiro biltzeko eta kudeatzeko.

5.- Udal Gobernu Taldeari eta Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzea berariazko neurriak har ditzatela, merkatuan dagoen plastikoa berrerabiltzea lortzeko, adibidez: martxan jarrita ontziak itzultzeko sistemako proba pilotuak Bizkaiko eskualdeetan; eta, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko Foru Arauaren kontratu klausulek markatzen duten moduan, kontratazio publikoan erosketako irizpide berdeak aurrera eramateko, birziklatutako plastikoz egindako objektuen erosketa lehenetsita birziklatu gabeko objektuen aurrean, hala badagokio.

Basaurin, 2018ko ekainaren 14an.

Sagarrak-ZERO ZABOR BIZKAIA Plataforma.



## Moción sobre la reducción del uso de los plásticos.

---

### Introducción:

Hoy en día la sociedad es consciente de la necesidad urgente de abordar los problemas ambientales que genera la manera en que se producen, utilizan, reciclan y descartan los plásticos, con el objeto de reducir las afecciones ambientales que se generan, así como tratar de obtener los mayores beneficios ambientales, sociales y económicos que se generarían con la aplicación de un enfoque más circular del uso de las materias primas.

A nivel global, el millón de toneladas de desechos de plástico que terminan en los océanos cada año es uno de los signos más visibles y alarmantes de este problema, causando una creciente preocupación pública. En este sentido, el plástico representa aproximadamente el 80% de los residuos que terminan en los mares y océanos, de los que una parte importante acaba en las playas.

La única solución a largo plazo pasa por reducir la utilización de productos plásticos, al mismo tiempo que se incrementa su reciclaje y reutilización. Durante el año 2016 en Bizkaia generamos 41.000 toneladas de residuos plásticos, de las que una parte - variable por municipio- se recoge para ser reciclada, por lo que nuestra responsabilidad en nuestro ámbito territorial está claro. Se trata de un reto al que no sólo la ciudadanía tiene que hacer frente, sino que, en un contexto de responsabilidad institucional, las instituciones vizcaínas y vascas también deben asumir. Es evidente que debemos alinearlos con las estrategias y los objetivos establecidos por la Comisión Europea que, en el marco del desarrollo de una estrategia de economía circular, pretende reducir el uso de los productos plásticos más contaminantes.

Por todo ello Sagarrak, en nombre de la Plataforma **ZERO ZABOR BIZKAIA**, propone al **Ayuntamiento de Basauri** la siguiente **PROPUESTA DE ACUERDO**:

1.- Instar al equipo de gobierno del Ayuntamiento de Basauri a que, en el ámbito de sus respectivas competencias, desarrolle todas aquellas actuaciones necesarias para alinearse con el objetivo establecido por la Comisión Europea de que **todos los envases de plástico del mercado de la Unión Europea sean reciclables o reutilizables antes de 2030**, que se reduzca el consumo de plásticos de usar y tirar y que se restrinja la utilización deliberada de microplásticos.

2.- Instar al equipo de gobierno del Ayuntamiento de Basauri a que, dentro de sus competencias, en un plazo no mayor de cuatro meses, presente en este pleno una **batería de medidas** destinadas a alcanzar lo antes posible los objetivos citados en el punto anterior, tales como:

- a. Criterios de compra verde en los suministros del ayuntamiento, dando prioridad a los productos libres de plástico.
- b. Dejar de utilizar botellas y vasos de plástico en todos los edificios municipales y en todos los actos y eventos públicos del ayuntamiento.
- c. Campaña para la sustitución de vasos de plástico ligeros por vasos retornables en las fiestas.
- d. Campañas de información y concienciación ambiental destinadas a reducir la compra de productos envasados en plástico y al empleo de bolsas de tela para la compra.

3.- Instar al Gobierno Vasco a que inicie los trámites administrativos correspondientes para la aprobación de instrumentos legales para regular la producción, venta, utilización y reciclaje, incluyendo expresamente la **prohibición de comercialización de objetos de plástico de un solo uso**, y a que prepare una proposición de Ley en este sentido, como por ejemplo las iniciativas emprendidas por el Govern Balear.

4.- Instar al Gobierno Vasco a que, en su ámbito competencial, tome medidas expresas para la recogida y gestión adecuada de los **residuos marinos en los barcos y puertos de Bizkaia**.

5.- Instar al equipo de gobierno del Ayuntamiento de Basauri y a la Diputación Foral de Bizkaia a tomar medidas específicas para lograr la reutilización del plástico existente en el mercado, por ejemplo poniendo en marcha pruebas piloto del sistema de retorno de envases en diferentes comarcas de Bizkaia y, tal y como marcan las cláusulas de contratos de la Norma Foral sobre compra pública socialmente responsable, materializando criterios verdes de compra en la contratación pública, y priorizando, en su caso, la compra de objetos fabricados con materiales reciclados frente a objetos fabricados con materiales no reciclados.

En Basauri, a 14/06/2018.

Sagarrak-Plataforma ZERO ZABOR BIZKAIA